



## **IRURTZUNGO II. ARGAZKI-LEHIAKETA: OINARRIAK**

Irurtzungo Udalak Irurtzungo II. Argazki Lehiaketaren deialdia egin du.

- 1.- Aukeratutako argazkiak Irurtzungo urteko egutegia egiteko erabiliko dira.
- 2.-16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

### **3.-GAIK:**

- Paisaiak , ondarea eta kultura Irurtzunen,2020/21 egindako argazkietan
- Irudiak Irurtzunen edota bertako paisaietan aterata egon behar dira.
  - Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, eta egile berak ezin izango ditu bi sari baino gehiago jaso.

### **4.-ENTREGATZEKO EPEA, BIDALKETA:**

- Lanak aurkezteko azkeneko eguna **azaroaren 5a izango da, 14: 00etan.**
- Posta elektronikoz bidal daitezke argazkiak [irurtzun@gmail.com](mailto:irurtzun@gmail.com) helbidera, gaian "Irurtzun argazki lehiaketa" adierazita, edo USB batean, Kultur Etxean entregatuta. USBa jabeari itzuliko zaio.

### **5.-AURKEZPENA:**

- Argazkiak JPG./JPEG formatu elektronikoan aurkeztuko dira, eta argazkia, horizontala izateaz gain, irudiaren erresoluzioko gutxienezko tamaina 3600x2450 pixelekoa izango da ,ongi argitaratu ahal izateko
- Erantsitako beste artxibo batean (.doc) edo (.docx), honako datu hauek adieraziko dira: Argazkiaren izenburua/izen-abizenak/NAN/Jaiotza-data/Helbide elektronikoa/Harremanetarako telefonoa. Argazkiaren datuak (tokia, data...)
- Erantsitako bi artxiboek (1. Argazkia – 2. Titulua eta lehiakidearen datuak) titulu bera izan beharko dute.

### **6.-SARIAK.**

- Guztira 13 sari banatuko dira, 50 eurokoak.

### **7.-EPAIMAHAIA.**

- Epaimahaia deialdia egin duen erakundeak izendatuko du, argazkigintzan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta kultura zinegotzia izango da epaimahaiburua. Kultura-koordinatzaileak jardungo du idazkari-lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Saritutako argazkiak Irurtzungo Udalarenak izango dira aurrerantzean, eta Udalaren esku geratuko dira argazki horien gaineko eskubide guztiak. Beraz, baimena izango du lanak irabazi-asmorik gabeko helburuetarako erreproduzitzeko, betiere egilearen izena aipatuta.

8.-Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Irurtzun, 2021eko urria

**-IRURTZUNGO UDALA-  
-KULTUR ETXEA-**